

Valentina Jauregi Maiza

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea

Biografia



Bedaioiko Gurbilaundi baserrian jaioa. Senide asko izan, eta neskame lanetan jardun zuen Donostian, Mirakontxan. Gaztetan, gaur egun ere Bedaioko berezitasun bat den 'Ingurutxo' dantza berezia berreskuratzen lan asko egin zuen. Zaharrengandik ikasi eta bere adineko gainontzekoei zein gazteagokoei dantza hori irakatsi eta herriko festetako ohitura berreskuratzeari ekin zion lagun batzuekin batera.

Zintak

TOL-011

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-02
- **Iraupena:** 102 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Ogia egiten eta labea garbitzen

- **Erref:** TOL-011/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Etxean zer jaten zuten azaltzen du: babarrunak eta azak egosita, labeko ogia... Ogia nola prestatzen zuten azaltzen du. Labea garbitzeko hostoa jartzen zuten makilaren puntan.</p>

Transkripzioa

- Etxian jateko, danok jateko, ze ein behar izaten zenduen?
- Jateko ta? Ba, su bajun babarruma ta azak egosi behintzat, bazkaltzeko. Haik preparatu ta haik. Ta ogie, berriz, labea gendun, ogie erretzeko labe zea bat, ta ogie han erretzen gendun. Orrea ein. Gero hure hola harrotu arten etxoin.
- Nola izaten zan hoi?
- Zea ein, masa, ta gero hure tapatu ta uzten gendun orro-mahaie eo erro-mahaie esaten giñekiun, han eitten gendun. Eta gero trapu batekin hure eitten gendun tapatu pixkat, ez hoztutzeatik. Ude beroakin-ta masa hoi eitten zan, ta ez hoztutzeatik. Ta gero hure eitten zan harrotu orre hori.
- Bere kasa harrotzen zan?
- Bere kasa harrotzen zan. Ta gero harrotzen zan garain, ez dakit nik zenbat denbora pasako gendun, ordu erdi bat eo [...], geo puxkek ein, ogie tamaiñeko puskek, ta gero [berriz hure], masa, gozatu ta pillen jarri. Labea berotzen zan sue einda, aurretik sue einda, ta geo labea dena garbittu. Ze esaten... laba-xatarra esaten giñekiun guk.
- Zer zan hoi?
- Eitten gendun, ba, hostokin. O lizarran hostok baldin bazien garai hartan, haikin; gaiñantzen beste zeozer, hostoa zuen zeakin. Makille luze baten, eta hure han lotu hosto hoik, ta gero laben. Klaro, garbittu ein behar. Nola ikatza ta hautse, han berotzeko nola sue eitten zan. Garbittu labea.
- [...]. Nola garbitzen zenduten?
- Hostok... Bai, makillen puntan jarri hosto haik, eskoba bezela, eskoba balitz bezela, ta laben garbittu, labea garbittu.
- Nola deitzen zeniyen horri?
- Labe-xatarra esaten giñikiun guk. Ez dakit.
- Eta ze egur erretzen zan laben?

- Bueno, zeona. Bai. Ba, pagoa izaten zan onena. Oain, aurretik txikituta. Gero, ogia ateratzen zanen, egurrek hezek igual izaten zien, ta laben sartutzen gendun. Ogia atera, zeatu, ta gero hurrengo errealdirako laben sartu egurrek ta ihar-ihar-ihar eitten zien su beroa... labeko bero harrekin. Ta gero hurruna ogie erre behar gendunen, berriz atzea sue eman,ta haikin ein ogie. Bueno, haik garbittu ta labea berotuta. Bai.

2. Ogiaren masa eta mahaia

- **Erref:** TOL-011/003
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:04:11. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Ogiaren masa nola egiten zuten azaltzen du. Ogia egiteko, mahai berezia izaten zuten, errazagoa izan zedin masa bertan egitea.</p>

Transkripzioa

- Ta masa, berriz, iriñe. Ealki, jelki, ealki esaten giñekiun guk zean... ze esaten giñekun...? Bahia. Bai. Ta bahian zeatu, ealki, ta zea kentzen zion... Jesus, Maria eta Jose! Iriñe behera ta gaiñen gelditzen zan azala.

- Hiztuna 2: Zahie.

- Zahie, hoi da. Masa ein, gero hure, masa hure, trapu batekin tapatu ta pixkat... Bai, orduerdi baten eo eukitzen gendun ta hure eitten zan harro-harro-harro.

- Ta [hortako] ez zenduten eukitzen pusketa bat aurreko...

- Bai, hori da, orrantza txikie, pelota txiki bat, ta harrekin orrea eitten gendun. Iriñe jarri, erdin zuloa bezela jarri, ta geo hure ude botata dena biguntzen zan zea, masa hure, [pixke hure], ta geo harrekin dena orrea ein.

- Ta hortako mahai berezi bat izaten zan, e?

- Guk ze esaten giñekiun, ba... Orra-mahaie esaten [giñon], erro-mahaie esaten giñon, baiño orra-mahaie. Bai, hoi da. Bai.

- Eta nolakoa izaten zan mahai hoi?

- Hoi denak iguala ez zan izango. Geo berria in genduna diferentexeo zan. Hau baiño luzegoa. Hau baiño haundixegoa, luzegoa, aurrenekoa behintzat, ta gero zabaleroa, ba, holakon bat eo izango zon. Baiño bere tapakin izaten zan, kutxe bat bazan bezela. Ta han ein masa ta gero, hola, zea, pillen utzi, trapu batekin tapatu, ta geo denbora puska bat utzitzen zitzaion masa horri ta hori eitten zan harro-harro.

- Ta ze bentaja zun erro-mahai horrek? Zeatik ez zan iten sukaldeko mahaien bertan? ze bentaja zun?

- Ez. Badakizu, iriñe jarri behar izaten zan; gero ude bota behar zitzaion ta, badakizu, ixkiñetatik mahai hontan... Bai, ein... ze kantidad hartzen zan. Baiño hamar-hamalau ogi igual eitten zien, ta ogik dexentek. Ta, ordun, mahaien gaiñen ta hola eitteko gaizki izaten zan. Ta hoi propio zin erre-mahai e eo erro-mahaie eo esaten giñekiun. Bai. Ta geo han tapatu tapakin ta egoten zien trapu batekin orrea´re bai, zea. Zenbatsu eingo gendun? Orduerdi bat eo. Ez dakit. Gehixeo eo hola. Ta harro-harro-harro eitten zan erre hure. Erdin zulok zittula jartzen zan orrea altxatzen zanen. Ta geo, ebaki puskek handik, ta berriz atzera gozatu ta ogie, denak ogi puskek

jarri.

- Ta nun iten zenduen ogia? Orre-mahai hoi nun egoten zan? Sukalden?
- Sukalden eukitzen gendun guk. Bai, bai, sukalden, baxtar baten hure han egoten zan.

3. Taloa egiteko errezeta

- **Erref:** TOL-011/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Taloa nola egiten zuten azaltzen du. Su baxua eta neskamea izeneko tresna erabiltzen zituzten hartarako.

4. Taloa jateko moduak

- **Erref:** TOL-011/007
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Talo onak egiteko eskuak oso garrantzitsuak ziren. Taloa esnearekin, urdaiarekin, txorizoarekin, gaztarekin... jaten zuten.

5. Gerraostean goserik ez zuten pasa

- **Erref:** TOL-011/011
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:16:39. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gerraostean ez zuten goserik pasa, ondo moldatzen baitziren zeukaten janariarekin. Igandetan janari berezia jaten saiatzen ziren: garbantzuak, paella...</p>

6. Ur bila Goiko Iturrira

- **Erref:** TOL-011/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:22:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Ur bila Goiko Iturrira joaten ziren. Ura edateko erabiltzen zuten ontziari buruz hitz egiten du eta erakutsi egiten du.

7. Lixibarekin arropa garbitzen

- **Erref:** TOL-011/016
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lixiba etxean egiten zuten. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du.

8. Haria egiteko ardatza

- **Erref:** TOL-011/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:34:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Haria egiteko erabiltzen zuten ardatza erakusten du eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du Valentinak.

9. Amonak arropak egiten zizkien

- **Erref:** TOL-011/023
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:18. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Orduko arropak aipatzen ditu: abarkak, mantarrak, galtzerdiak... Amonak egiten zituen galtzerdiak, eta nola egiten zituen azaltzen du.

10. Ahizpen arteko lan-banaketa

- **Erref:** TOL-011/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:42:03. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Neguan ospelak ateratzen zitzaizkien kanpoan lan egin behar izaten zutenean; ez zituzten eskularruak erabiltzen. Bazkaria prestatzea eta ura ekartzea Valentinaren lana izaten zen. Ahizpa zaharragoei tokatzen zitzaizkien kanpoko lanak.

11. Ingurutxo dantza

- **Erref:** TOL-011/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzan gustura ibiltzen zen Valentina; zer musika estilo dantzatzen zituen azaltzen du. Ingurutxo dantza egiten zuten eta nola izaten zen aipatzen du.

12. Gabinaren ikasten zuteneko oroitzapenak

- **Erref:** TOL-011/040
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:15:29. **Bukatu:** 01:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan Gabinarekin ibili zen. Dotrina ikasten zuten gehienbat. Mutilek eta neskek batera ikasten zuten. Komuna denen bistan zegoen. Zer zigor izaten zituzten azaltzen du. Euskaraz ikasten zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com